## hoy escribe

J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegi" (*)

# 1892-VII-20: Eli ehun urte

Zenbait hilabete honetan barrena, argi-iturri oparo bihurtzen da prentsa irakurtzea. Aste berean (Uztaileko bigarren astean, adibidez) elkarginka agertu zaizkigu naziomogimenduei buruzko berriak.

Oraindik ere Eslobakia Askatuaren oihartzunak itzali ez direlarik (gure garaiko "Txekoslobakia" hura gure begien aurrean puskatu baita), harrapaladan haizatu dira beste nazio-arazo batzu.

Egunero, bortizkeria basaren bidez, Serbiak bere inperialismo lotsagalduari eutsi nahi dion unean, soluzio-bidez Boskia-Herzegobinaren zatiketan somatzen da soluzioa: jadanik aldarrikatuak diren bi errepublika berriei (kroaziarra bata, eta serbiarra bestea, biak Bosnia-Herzegobinaren barruan), bertako "muslim"ena erantsiko litzaieke orain. Eta Sarajebo, Trieste eta Berlinen antzera, Bosnia-Herzegobina hirukun orren hiriburu amankomuna bihurtuko litzateke.

Kasu horiek ez dira bakarrak. Korazia-Errepublikaren barruan bide bertsutik, beren errepublika berezia aldarrikatu dute berriki bertako serbiarrek: "Krajina Errepublika" deritzo.

1914ko gerratearen ondorioz Austria-Hungria suntsitu zenean, gerra-galtzaileen lurralde-zatiketa antolatu zuten irabazleek. Eta 1920an Trianon-go bake-ituna sinatu zen. Hori dela-ta, eta hango herrien arteko berezko muga aintzakotzat hartu ez zutelako, hungariar pilo bat gelditu zen Eslobakia barruan, gutxiengo gisa (569.000 lagun gaur egun). Teorian bederen, eskola eta administrazio eskubide linguistiko batzu atxiki dituzte urte hauetan.

Hots, orain dela gutxi Eslobakiak bere gaintasuna lortzean, miloi erdi hungariar hori "elebiduna" omen dela-ta (ez baita egia!) eslobakiera ezarri du lege-hizkuntza bakartzat eta Estatu berriko eskualde guztietan. Hungariar gutxiengoa beldurtu egin da horretara, muga ofizialen faltsua salatu du, eta herrien Auto-Determinazio eskubidea gogoratuz, ahalik eta autonomiarik zabalena eskatu du. Administrazioan, adibidez, eta ahozko harremanei dagokienez, hungariarrak %20 baino gutxiago diren eskualdeetan, beren maggyar hizkuntza erabiltzeko eskubiderik gabe gelditukoa lirateke. Eta hori ez dute inolaz ere onartuko. (Han ez omen dago Buesa-rik).

Alor berean, baina beste muturrean nolazpait esateko, Moldabia-Errepublikako errusiarrek (etorkin berriak; Stalinen zatikeria horietakoa baita Moldabia errumaniarrarena), okupazioko armada errusiarraren buru den Lebed generalaren bedeinkazioaz bizkorturik, Arjeliako Salan, Kongoko Tseombé eta Hego-Afrikako Declerk-en bidetik abiatu dira; eta burujabetza abertzale zuzenen projektuak oro zikinduz. "Transnistria-Errepublika errusiarra" aldarrikatu dute. Etxetik kanpo aldetik datorrenak botako baitzaitu zeure etxetik, omen.

Europan bakarrik ez, ordean, herri ukatuen pizkunde nabarmen hori.

Canadan ere (Ipar-Amerikan, beraz) burujabetza osoaren aldeko mogimendu abertzalea azkartuz doa. Han ere, aurreko kasu *guztietan* bezala, bai sortu den *borroka* eta bai herrien izaera-ardatza, *nazio-hizkuntzaren* inguruan kokatzen da. Egun hauetantxe aurkeztuko zaie Quebec-tarrei gainerako bederatzi probintziek prestatu duten akordio konstituzionala. (Jakina denez, Meech Lakuko porrotaren ondoren, geldirik dago dena Kanadan).

Bourassa-ren gobernuak (Quebec-ekoak, beraz) gainerako probintzietatik datorren proposamena aztertuko du segituan. Quebec-i herri adinako autogobernurik eskaintzen ez badio, datorren Urriaren 26an (edo lehenago, agian) *Auto-Determinazio prozesua* abiaraziko du Bourduak, Quebec-entzako "Burujabetza Osoa" eskatuz ("pleine souveraineté" irakurtzen dugu frantsesez).

Horra hor "munduko haizeak". Zertan gara gu?

Alferrik da hitzerditan ibiltzea. Denis Langlois adiskideak zehazki errepikatzen duenez, "aukera historiko bat" galtzen ari gara. *Ari gara gu, abertzaleok*, jakina. Antieuskaldunek, bertako salduen laguntzaz, herri hoen arrozkuntza, erdibiketa eta fundiera inoiz baino aurrerago eraman dute beren asmoa.

Orain, hain zuzen, *datorren astelehenean*, Uztailaren 20an, *Eli Gallastegi* abertzale profetikoaren I. mendeurrena ospatzera goazelarik, eta "Mendigoizale"en eta "Jagi-Jagi"tarren merezimendu eta aurrikusmen harrigarria azpimarratuko ditugularik, mementua etorri da abertzaleok; alegia, herri honen *aberri-askatasuna* eta *nazio-burujabetza* zinez bilatzen eta nahi dugun GUZTIOK, siglen gainetik, perlesiak jota bide dauden alderdien gainetik, Elik altxatu zuen INDEPENDENTZIA helburu bakarraren inguruan elkartzeko eta geure indarrak antolatzeko. Taktikak taktika, sektoreak sektore, gehigarriak gehigarri, eta gerokoak gero, guk *gaur egun*. Europako eta mundu guztiko hamaika herrik bezala. *Auto-Determinazioa eta Burujabetza* eskatzen ditugu.

Izan bedi *Nazio-Burujabetza* abertzale *guztion borroka-ardatza*.

Gainerako *guztia* Eli Gallastegik eta beste abertzale argi batzuk zuzen aspaldidanik proposatu zutenez, *gero*.

Gainerakoa, oso bidezkoa izanik ere, GERO ETA GEURE ARTEAN aztertu eta erabakiko dugu.

Lehenengo pausua: BURUJABETZA. Besterik ez.

*(* Idazlea)*

## hemeroteca

### Al borde del despido libre

*(Editorial «ABC», 18/VII/1992)*

La propia Ejecutiva socialista endosó el anuncio gubernamental de flexibilizar los trámites administrativos para el despido. La desregulación del mercado de trabajo es una de las más perentorias exigencias para poder crear empleo a medio plazo. Ningún empresario "disfruta" despidiendo. Pero la viabilidad de la empresa requiere la permanente adecuación de sus recursos humanos a las coyunturales exigencia del mercado. Hay que subrayar, elogiosamente, la paradoja de que sea un Gobierno socialista el que rompa un tabú heredado del pasado. Ahora, hace falta que lo entiendan también los sindicatos, enquistados en la defensa de los trabajadores ocupados, cuyos intereses no son coincidentes con los del 1.635.000 —un 17'45 por 100 de la población activa— en stuación de paro. (...)

### ¿Fin de Euskadiko?

*(Editorial «El País», 18/VII/1992)*

Euskadiko Ezkerra (EE) no sólo no se ha recompuesto desde su último congreso, en febrero de 1991, en el que la formación política vasca se dividió en dos partes casi iguales, sino que está en trance de desaparecer como tal. La radical divergencia manifestada entonces entre quienes abogaban por un giro hacia el nacionalismo *abertzale* y quienes defendían la marca de origen del partido como una opción de izquierda nacional vasca y plural puede dar al traste con un original ensayo de centrar la vida política en Euskadi en algo más que en la estéril pugna entre nacionalismo y no nacionalismo.

En estos momentos, tanto el sector escindido tras el congreso de febrero del año pasado, agrupado en la formación Euskal Ezkerra, como el que conserva la siglas de EE mantienen sendos y paralelos procesos de convergencia con Eusko Alkartasuna (EA) y con el Partido Socialista de Euskadi (PSE-PSOE), respectivamente. Los primeros renunciaron formal y explícitamente a la apuesta política de marca de EE a cambio de un hipotético modelo neonacionalista basado en la unidad entre el "nacionalismo progresista" y el "nacionalismo de izquierda". Pero tampoco EE como tal parece encontrarse en condiciones de mantener dicha marca: el difícil envite de su unificación con los socialistas vascos, de naturaleza todavía desconocida —¿absorción?, ¿aproximación mutua?, ¿nueva formación?—, puede terminar en su integración pura y simple en el PSE-PSOE más que en una convergencia política entre las dos formaciones.

(...) La convergencia del sector histórico de EE con el PSE-PSOE, fiel a lo que estas siglas representan, plantea si cabe mayores dificultades que el reciclaje que pretende Euskal Ezkerra en el seno del partido de Garaikoetxea. (...) Ello no quita para que las resistencias y las desconfianzas sean parecidas. La futura relación orgánica entre EE y el PSE-PSOE, sea cual sea la forma que adopte, no debería en ningún caso ser el entierro de lo que ha significado en la reciente historia de Euskadi la dinámica de unión de nacionalistas y no nacionalistas en un mismo proyecto político. (...)

## colaboracion

### Una tregua para una paz

La tregua ofrecida por ETA puede y debe abrir el camino al diálogo, a la negociación y, finalmente, sobre todo, a la pacificación social. Para ello será preciso que ambas partes, gobierno español y ETA, superen las dificultades y diferencias iniciales, se liberen de ese yugo entorpecedor de las condiciones previas y del tremendismo del "ultimátum", no menos entorpecedor.

Es absolutamente razonable que el Gobierno exija una tregua efectiva para establecer cualquier mesa de diálogo. Pero hay que añadir que si la cuestión etarra no se resolverá sin un cese definitivo de la actividad armada, no es menos cierto que tampoco se resolverá sin una solución satisfactoria de los presos.

Es posible que nunca se haya estado tan cerca de una solución de la cuestión etarra. La posible constitución de una mesa de diálogo entre ETA y el Gobierno se produciría en un momento de una enorme —y no casual— oportunidad, ofrecida por esa otra mesa entre el Partido Nacionalista Vasco y Herri Batasuna.

Una vez establecida dicha mesa entre la organización armada y el gobierno español, existen indicios más que suficientes como para pensar que la propia ETA no entorpecería —e incluso favorecería— el relanzamiento de la mesa política PNV-HB, a la cual habrían de incorporarse otros partidos, y de una manera fundamental y necesaria, el Partido Socialista Obrero Español.

El diálogo y la negociación son posibles y necesarios, y son imprescindibles si se desea alcanzar ese objetivo último de la ansiada paz social.

Para ello será preciso superar, por ambas partes, desde la generosidad y la voluntad de diálogo, toda tentación a la altivez y al resentimiento. Será preciso también ejercer, como nunca, no sólo el derecho a intentar convencer, sino el deber de escuchar y comprender. Porque la tolerancia es, sobre todo, respetar aquello que, aún comprendiéndose, no se comparte.

Ginés CERVANTES AGUADE